

Balio proposamena

Gaur egun bizi garen gizartean, gurasoek ez dute euren zeregin pertsonalak zein profesionalak egiteko denbora edo aukerarik izaten; beraz, gure enpresak egoera honetan laguntzea du helburu.

Guk eskaintzen dugun zerbitzua umeak zaintzeko eta denbora pasatzeko aukera da, gurasoek zereginak egiten dituzten bitartean. Umeek lan handia eman dezakete eta denbora falta izaten dute gurasoek, denbora-tarte batez, zereginak eguneratzeko aukera izan dezaten, guk umeen kargu hartuko dugu.



Gure enpresan zerbitzu asko eskaintzen ditugu:

- Eskolako lanetan lagun diezaiekegu: gurasoentzat nekagarria izan daitekenez seme-alabekin etxekolanak egitea, guk etxeko lanekin eta dituzten zalantzekin laguntzen diegu.
- Gauean lokalean bertan lo egiteko aukera izan dezakete: Gure instalazioak erabat egokiak dira umeek gau eroso bat izan dezaten, eta momentu guztietan izango gaituzte monitoreak eskuragarri.
- Otorduak izan ditzakete bertan: Dieta bereziak, medikazioak...errespetatuz.

Beste edozein egoeratan ere lagundu diezaiekegu gurasoei.